

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BURGELUKO UDALA

#### Behin betiko onartzea 2/2016 kreditu gehigarria

Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 2/2016 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena eman zion erabakiaren aurka erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez gero, espediente hori behin betiko onartuta geratu da, ondoko honen arabera:

#### Gastuak

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
942.734.000	Transferentzia administrazio batzarrei, obrak direla eta	16.070,83 €
920.421.000	Kuadrilla (gastu orokorrak, zaborrak...)	3.000,00 €
151.421.000	Kuadrilla (arkitektoa eta aparajadorea)	1.000,00 €
231.421.000	Kuadrilla (gizarte laguntzailea - ingurumena)	1.500,00 €
334.481.004	Udalerriko elkarreentzako dirulaguntzak	1.000,00 €
942.734.005	Kontzejuntzako laguntzak, ibaiak garbitzeko	15.000,00 €
920.130.002	Langabetuak kontratatzekeo programa	16.500,00 €
<b>Gastuen aldaketaren zenbatekoa, guztira</b>		<b>54.070,83 €</b>

#### Diru sarrerak

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
41003	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza (LANBIDE) Langabetuak kontratatzea	1.901,72 €
41005	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza, udalerriko ibaiak garbitzeko	7.500,00 €
87002	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	44.669,11 €
<b>Diru sarreraren aldaketaren zenbatekoa, guztira</b>		<b>54.070,83 €</b>

Espedientea finantzatu behar duten baliabideek, guztira, berrogeita hamalau mila hirurogeita hamar euro eta laurogeita hiru zentimo jotzen dute (54.070,83 euro).

2/2016 kreditu gehigarria behin betiko onartzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2016ko uztailaren 27a

*Alkate-lehendakaria*

**NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA**